



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Calixto Bieitok Bach-en *Johannes Passion* oratorioa eszenaratuko du, erredentziorako bidea gizatasunez eta edertasunez islatzen duen maisu lana

- Arriaga Antzokia nazioarteko lehen mailan jarriko da berriro, *Pasioa San Joanen arabera* lanari buruzko ikuskizun handi honi esker, Arriaga Antzokiaren beraren eta Parisko Théâtre du Châtelet izenekoaren arteko ekoizpen lana, hain zuzen ere.
- Arriaga Antzokiak eszenaratutako oratorioaren erabateko estreinaldia jasoko du datorren ostiralean, apirilaren 13an, eta larunbatean, 14an; eta 2019ko ekainean Parisen taularatu arte ez da berriz ikusterik izango.
- Luxuzko interpretatzaile taldea nazioarteko mailako sei abeslari bakarlarik osatuko dute: Joshua Ellicottek, James Newbyk, Robert Murrayk, Jonathan McGovernek, Berit Norbakken Solsetek eta Carlos Menak.
- Musika zuzendaritza Erik Nielsenen esku egongo da; bere gidaritzapean izango du BOS, eta 40 ahots inguruk osatutako Bilboko Opera Koruak ere hartuko du parte.

**Bilbon, 2018ko apirilaren 6an.**- Arriaga Antzokia nazioarteko lirikaren goi mailan egongo da berriro, datorren astean egingo den **JOHANNES PASSION** lanaren erabateko estreinaldiari esker. **Arriaga Antzokiaren eta Parisko Théâtre du Châtelet izenekoaren arteko ekoizpena** da, **Johann Sebastian Bach** konposatzaile aleman paregabearen *Pasioa San Joanen arabera BWV 245* oratorio ezaguna eszenara eramango duena. **Calixto Bieitoren** zuzendaritzapean, gizatasunez eta edertasunez kargatutako lan bikaina eszenaratuko da, benetako maisu lana, musikaren eta artearen historiako goi mailako sorkuntza lana.

Ostiralean, apirilaren 13an, eta larunbatean, 14an (biak ere 20:00etan), muntaketa lan honen bi emanaldi bakarrak eskainiko dira Arriaga Antzokian. Ez da beste emanaldirik eskainiko datorren urtera arte, 2019ko ekainera arte, hain zuzen ere, Pariseko Châtelet antzokiko taula gainean erakutsi arte. Beraz, gertakari paregabearen eta musika eta eszena bikainaren zaleek galdu ezin dezaketean aukeraren aurrean gaude.

Bachen musika kontsolamendura, liberaziora eta bestearen bilaketara eramaten duen bidea da. *Johannes Passion* lanak indarkeriaz islatzen du erredentziora daraman bizitzako bide hori. Gaur egungo gizakiak zelan egiten du berba maisu lan horrekin? Zelan egiten diegu aurre minari, heriotzari berari, heroiaren duintasunarekin, gure gurasoen indarrarekin? Ikuskizuna planteatzeko orduan Calixto Bieitok kontuan izan dituen galderak dira. Dramaturgia, duela zenbait urtez Bieitorekin sarritan lan egiten duen **Bettina Auer** musikologo eta filologo alemaniarrena da, musikako antzerki zuzendaritzan aditua.

### Goi mailako interpretatzaileak

*Johannes Passion* bezalako goi mailako konposaketan oinarritutako ekoizpen lanak lehen mailako interpretatzaileak behar ditu, nazioarteko antzoki eta auditorio garrantzitsuetan esperientzia dutenak baina, aldi berean eta batez ere, horrelako erreperitorio barrokoan

espezialistak direnak. Sei abeslari bakarlarik osatzen dute ahots talde protagonista, eta horietatik lau Britainiar Uhartetarik datoz. Azpimarragarria da kontzertu, opera eta errezitaldi ibilbide luzea duen **Joshua Ellicott** tenore ingelesak interpretatzen duen Ebanjelista. Ebanjelistari bidea emanaz, Ellicottek ikuskizuneko pertsonaia nagusia antzezten du, goi mailako zailtasun teknikoak duen papera, eta musika eta prosodia paregabeak ematen dizkio. Jesusen rola **James Newby** baritonoak beteko du. 24 urte baino ez dituen arren, dagoeneko aintzatespen asko jaso ditu, bere ahotsaren kalitatea dela eta. Izan ere, harrigarria da horrelako ahots kolore sakontasuna izatea hain gaztea izanda. Beste ekarpen garrantzitsu bat sinfoniaren eta operaren arloetan ibilbide luzea eta Lied erreperatorioaren ezagutza maila sakona duen **Robert Murray** tenorearena izango da. Azpimarragarria da, baita ere, *Johannes Passion*-en elementu erakargarri gisa, **Jonathan McGovernen** itzulera, Pilatosen papera betez. Iaz, Orfeo interpretatuz, guztiok aho zabalik utzi gintuen, Arriaga Antzokiak ekoiztutako *L'Orfeo* lanean. Eurekin batera **Berit Norbakken Solset** soprano norvegiarrak lehen aldiz zapalduko du Arriaga antzokiko eszenatokia. Eskandinaviako ahotsik errespetatuenetakoa da, eta bere ahotsaz aparte, ikuskizunean oso pisu garrantzitsua beteko du, Calixto Bieitok ematen dion presentzia dela eta. Amaitzeko, ekoizpen lanak, gure ahots ospetsuenetakoaren partaidetza ere izango du, **Carlos Mena** gasteiztarrarena, ahots seikote paregabea itxiz. Mundu mailan eskari asko jasotzen dituen Mena, Bachen pasioen eta bestelako lanen interpretazioan espezializatuen dagoen abeslarietako bat da, eta asko eta asko dira erregistratuta dituen grabazioak.

Bakarlariez gain **Bilbao Orkestra Sinfonikoak – BOSEk** bere ohiko kaudimena eta interpretaziorako kalitatea eskainiko ditu, **Erik Nielsen** maisuaren zuzendaritzapean. Zuzendariak, gainera, Klabea joko du zuzenean. Eta ahots zirrara gehitzeko, **Bilboko Opera Koruaren** ekarpena azpimarratu behar da, oraingo honetan ia 40 ahotsek osatutakoa. Horien artean, *Johannes Passion* lanean egindako bakarkako ekarpenak direla eta, azpimarragarriak dira **Olga Revuelta**, **Iñaki Lazkano** eta **Polentzi Garcíaren** ahotsak.

Inplikaturako artista guztiak **Aida Leonor Guardiak** egindako eszenografia ikusgarriaren barruan arituko dira. Eliza oratorio edo katedral bat gogorarazten du, baina, horrez gain, “concert hall” moderno baten antza ere badu, bai estetikaren aldetik, baita akustika eta soinu aldetik sortzen dituen onurengatik ere. Lan horrekin, Leonor Guardiak argi eta garbi erakusten du zergatik den ospe handiko eszenografoa European, Operaren alorrean, batez ere.

*Johannes Passion* lan honen ikusgarritasunean eragina dute, baita ere, euren alorretan erreferente diren eta Calixto Bieitorekin sarritan aritzen diren **Michael Bauer** argiztapenaren diseinugilea eta **Ingo Krügler** figurinista, antzezlanean jantzien arduraduna. Krüglerrek estilo arrunteko jantziak aukeratu ditu, ohiko herritarrek erabiltzeko, loriatsu eta zerutiar entzuten den musikarekin kontraste erakargarria bilatuz eta lortuz. Krüglerrek, Pariseko Théâtre du Châtelet-etik beren beregi etorri den **Paula Kleinen** laguntza izan du.

### **JOHANNES PASSION GAZTEA**

*Johannes Passion* lana eszenan jartzeaz baliatuz, Arriaga Antzokiak “Johannes Passion gaztea” ekimena darama aurrera, iaz *L'Orfeo* eta *War Requiem* lanekin aurrera eramandako ekintza arrakastatsua errepikatuz. Ekimenaren helburua lirikaren mundua gazteei hurbiltzea da eta, halaber, Arriaga Antzokiaren beraren eta gazteen arteko elkarrekintza sustatzea. Horrela, asteazkenean, apirilaren 11n, 20:00etan, egingo den Entsegu Orokorra dohainik joateko aukera eskainiko zaie Arriaga antzokia Facebooken, Twitterren edo Instagramen jarraitzen duten 30 urtetik beherakoei. Beraz, ikuskizun handiarekin gozatzeko aukera paregabea baliatu nahi duenak bi baldintza hauek baino ez ditu bete behar: 30 urtetik beherakoa izatea eta Arriaga Antzokiaren jarraitzailea izatea edo egitea bere Sare Sozialetan.

Doako sarrera lortzeko (pertsona bakoitzari bakarra emango zaio), interesatuta dagoena antzokiko txarteldegietara edo Informazio Bulegora joan beharko da, NAN erakutsi eta sare sozialetan Arriaga Antzokia jarraitzen duela frogatu. Sarrerak leku guztiak bete arte banatuko dira.

### **SARRERAK**

- 15 eta 51 euro artean
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean, 946 850 850 telefonoaren bitartez edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

# **Johannes Passion**

**Johannes-Passion BWV 245**

**Johann Sebastian Bach**

## **INTERPRETATZAILEAK**

Ebanjelista: **Joshua Ellicott**

Sopranoa: **Berit Norbakken Solset**

Altua: **Carlos Mena**

Arietako tenorea: **Robert Murray**

Pilatos/arietako baxua: **Jonathan McGovern**

Jesus: **James Newby**

Ancilla: **Olga Revuelta**

Servus: **Iñaki Lazkano**

Petrus: **Polentzi García**

Orkestra: **BOS – Bilboko Orkestra Sinfonikoa**

Abesbatza: **Bilboko Opera Korua**

Musika zuzendaritza eta klabea: **Erik Nielsen**

Eszena zuzendaritza: **Calixto Bieito**

Eszenografia: **Aida Leonor Guardia**

Figurinista: **Ingo Krügler**

Argiztapenaren diseinua: **Michael Bauer**

Dramaturgia: **Bettina Auer**

Maisu errepikatzailea: **Husan Park**

Eszena zuzendariaren laguntzaileak: **Lucía Astigarraga eta Barbora Horáková Joly**

Figurinistaren laguntzailea: **Paula Klein**

Argiztapen laguntzailea: **Verena Mayr**

**Estreinaldia Arriaga Antzokian**

**Ekoizpena:**



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

**châ**

THÉÂTRE

**-te-**

MUSICAL

**let**

DE PARIS

Informazio gehiago:

Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA

Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307

[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)

[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)